

LAZKAO / 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpainaren azken egunak

Euskaltzaleen Topaguneak 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' egitasmoaren zazpigarren edizioa jarri zuen martxan apirilean, zenbait euskara elkarte, udal liburutegi eta liburu dendarekin batera. Aurtengoan Goierriko bost herritan dago martxan, horien artean, Lazkaon. Udal liburutegia, Gerriko liburu-denda eta Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteak antolatu dute elkarlanean aurten ere.

Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pausu eman behar dira; lehenengo, liburutegira joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu. Ondoren, liburutegira bueltatu eta hari buruzko fitxa simple bat bete. Horren truke, liburuzainak erosketa-txekea emango digu, eta horri esker, Gerriko liburu-dendan euskarazko beste edozein liburu erosterakoan %25eko deskontua izango dugu, edota %50a Gerriko kultur elkartearen kidea izanez gero.

Liluratura udazkenean

Kanpainaren azken egunak dira hauek, ekainaren 30ean bukatuko baita. Oraindik zein liburu aukeratu ez dakienak hona hemen proposamen bat: Alice Munroren 'Zorion handiegia'. Izan ere, horixe izango da hurrengo Liluratura saioan, udazkenean, landuko dutena.